

ARRAUNA

Arraun Lagunak da faborito donostiarren estropadan

Ur-Kirolak eta Fortunako traineruek aukera gutxi dituzte

Eguerdiko hamabietatik aurrera, Kontxarako sailkapen zuzena jokatuko dute Donostiako hiru traineruek. Arraun Lagunak, Fortuna eta Ur-Kirolak traineruen arteko estropadan irabazte izaten denak Kontxarako txartel zuzena eskuratuko du.

DONOSTIA

Arraun Lagunak Lugañene trainerua denboraldi bikaina egiten ari da. Benito Elizalde eta Josean Jauregi zuzentzen duten taldeak bost bandera irabazi ditu aurtengo denboraldian, eta gaurkoan Kontxarako sailkapen zuzena lortu asmo dute.

Arerioak Ur-Kirolak eta Fortuna izango dira. Azkenak aurreko urteetako maila erakutsi duten bitartean, Ur-Kirolakekoek behera egin dute. Orain arteko estropadetan ikusi ahal izan dugunez, Loiolakoak oso urrutitatu daude lehen postuetatik. Lehengo urtean denboraldi polita burutu



Lugañene traineruak ez luke garaipena lortzeko arazorik eduki behar. VILLAGRAN

arren, Oscar Rodriguezek patroneatzen duen traineruak aldaketa ugari izan ditu.

Arraun Lagunak urtea arras ezberdina da. Benito Elizalde eta Josean Jauregi arraunlari-entrenatzaileen zuzendaritzapean Martutenekoek talde indartsua bildu dute.

Arraunlari «beterano» eta gazteen arteko oreka lortu dute, eta helburu nagusia Kontxako estropadan lehen postuetan egotea da. Orain arte ikusitakoaren arabera, donostiarrak lehen postuetan ibiltzeko moduko taldea dute, pasaitar eta oriotarrak gaitzeko gai izan bait dira.

Euskal traineruek jokatuko dute Espainiako Txapelketako finala

SANTANDER

Lau euskal traineruek jokatuko dute gaur Espainiako Txapelketako finala. Atzo Santanderreko kirol portuan jokatu zen sailkapen estropadan arazo ugari izan ziren. Estropada 40 minutu beranduago hasi zen.

Lehen txandan Pasai Donibaneke Erreka trainerua nagusitu zen. Juan Mari Lujanbiok zuzentzen duen traineruak 21.11ko denbora behar izan zuen txandako garaipena eskuratzeko. Bigarren postuan San Pedroko Libia sailkatu zen segundu bako batera. Bi pasaitarrek ez zuten inolako arazorik izan, txandakide ziren Txapela eta Castropol oso atzean ibili bait ziren. Azken traineru honek arraunlari bat gutxiagorekin egin


zuen estropada, Marco uretara bota bait zen. Castropoleko arraunlariak erritmoa jeistea erabaki zuten gaur indarrean egoteko, eta Marcok ez zuen erabaki hau onartu.

Bigarren txandan ere bi euskal ordezkariak nagusitu ziren. Orioko San Nikolas trainerua hasieratik aurreratu zen, baina hirugarren ziarbogan Zierbenako galipoek agiltxoekin bat egin zuten. Bi traineru hauek bat eginda joan ziren helmugaraino, eta azkenean oriotarrak nagusitu ziren 21.06ko denboraz, Zierbenak 21.07 egiten zuten bitartean (pasaitarrek baino denbora hobea). Santanderreko trainerua azken momenturarte saiatu zen finalean sartu zen, baina azkenean Zierbenak baino zortzi segundu gehiago egin zituzten.



Juan Carlos Fontan.

ZALDI LASTERKETAK



Goi mailako partaidetza izango da Eusko Jaurlaritza Sarian. CARLOS VILLAGRAN

Eusko Jaurlaritza saria gaur ikusgai Donostiako hipodromoan

PELLO LORAN / DONOSTIA

Aste Nagusiko zaldi lasterketen azken ihardunaldia gaur jokatu da Donostiako hipodromoan. Eusko Jaurlaritzak urtero babesten duen sariak hamabost milioi izango ditu irabazlearentzat, baina Urrezko Koparekin badu alderik ere, seirehun metro gutxiagotan jokatu dela hain zuzen ere.

Atzerriko bi zaldik hartuko dute parte Espainiako parte hartzaileekin batera. Aipagarria da Madrilgo zalditegi batek propio erosi duela zaldi bat karrera hau irabazteko. Primer Amor izeneko zaldia da garaipena eskuratzeko faborito nagusia. Orain hiru aste eduki zuten prestakuntza lasterketa berezian zaldi honek ez zuen parte hartu eta zuzenean etorriko da Eusko Jaurlaritzako sarira. Aurreko urteetan erakutsi du gustokoa duela hipodromo hau eta gainditu nahi duenak lan asko egin beharko du.

Bass zaldia ere irabazteko faboritoen artean dago. Bere sasoirik onenean egon ez arren, Dana Ona saria irabazi zuen eta orain, entrenamendu gogorak egin ondoren, lasterketa bikaina egiteko moduan agertzen da. Gainontzeko zaldien artean, El Bimbo argentinarra aipatu beharra dago, oso forma onean bait dago. Sherman ere osatuta dagoela dirudi, odol jarria izan ondoren eta Festejantek aurreko postuetan egoteko aukera izan dezake. Atzeritik etorri

Gure pronostikoak:

- 1-Felochi (3) - Piseña's Foxy (2)
- 2-Ley More (2) - P. El Willy (5)
- 3-Prontissimo (4) - Imanol (3)
- 4-Tradehorn (6) - Brusco (1)
- 5-Primer Amor (6) - Bass (2)
- 6-Robertiya (9) - Mil Rabit (5)
- 7-Jasankor (7) - Galerna (3)

direnen artean, Isudrinek lortu du balorerik onena, baina inoiz ez da bi mila metrotatik jaitsi.


Getaria sariak irekiko du gaurko ihardunaldia, hesidun karrera alegia. Felochi da irabazteko faboritoa eta Piseña's Foxy bigarren posturako. Bigarrenean, zaldi gutxi izango dira baina pronostikoa ez da batere erraza. Ley More, ibilbidea luzeegia egiten ez bazaio eta Piseña's El Willy dira bi faboritoak. Urmieta sarian, Prontissimo eta Imanolen artean egon daiteke garaipena. Hamabi moxalek hartuko dute parte laugarren karreran. Tradehorn, Brusco, Pavarotti eta Lengok zeresanik izango dute.

La Zarzuela sarian, Alborada zalditegikoak izango dira berriz ere faboritoak. Robertiyari laburtu egin diote distantzia, baina gauza izan daiteke 1.600 metroak egiteko. Mill Rabit ere gertu ibiliko da. Azken karrerari dagokionez, Jasankor da faborito nagusia. Ibilbide txarra izan zuen aurrekoan, baina oraino gauza asko ditu bere alde.

Kutxa
gipuzkoar
udaren alde

Gaur, estropadak Kontxan

Eguerdiko 12,30etan, **Ur-Kirolak**, **Arraun Lagunak** eta **Fortunako** traineruak elkarren aurka lehiatuko dira Iraileko ohizko estropadetan donostiarren ordezkariak nork eskuratuko. **Kutxak**, estropada hauen babesle gisa, animoak opa dizkie lehiakide guztiei gailentasunaren erronkari eusteko.



kutxa

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián